

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara, Kultura eta Kirol Sailsa**

**Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuaren 363/2020 FORU AGINDUA, otsailaren 5ekoa, zeinaren bidez Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko abenduaren 10eko 185/2019 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatuko dituen epaimahaiko epaimahaikideak izendatzen diren. Foru dekretu horrek 2020ko ekitaldirako «Ertibil-Bizkaia» ikus-artearen Erakusketa ibiltarirako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen ditu.**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2019ko abenduaren 10eko 185/2019 Foru Dekretuak 2020ko ekitaldirako «Ertibil-Bizkaia» Ikus-artearen Erakusketa Ibiltarirako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen ditu (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 241 zenbakia, 2019ko abenduaren 18koa —asteazkena—).

Foru dekretu horren 11. oinarrian honako hau ezartzen da: «Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da. Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuak izendatuko ditu epaimahaikideak, foru agindu bidez». Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Aginduaren 44 artikuluan ezarritakoa beteko da.

Batetik, aintzat hartu da oinarri horretan xedatutakoa. Bestetik, kontuan hartu da Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko titularrari 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 39.i eta 67.1 artikuluetan (Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko Araua), 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan (Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duena), Bizkaiko Foru Aldundiaren 2018ko martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuan (Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kulturako Foru Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi zuena) eta gainerako baterako xedapenetan ematen zaizkion eskumenak. Azkenik, kontuan hartu da, halaber, prozeduran parte ez hartzeari eta errefusatzeari dagokionez 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23 eta 24. artikuluetan xedatzen dena (lege hori Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena da). Bada, horren guztiaren ondorioz, honako hau

**XEDATU DUT:**

*Lehena:* 2019ko abenduaren 10eko 185/2019 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko arduraz gain, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan, ebazpen-proposamena prestatu eta aurkezteko ardura duen epaimahaiko kideak izendatzea. Honako hauek izango dira, beraz, epaimahaikideak:

- Epaimahaiburua:
  - Andoni Iturbe Amorebieta, Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako zuzendari nagusia.
- Ordezko epaimahaiburua:
  - Xabier Arauzo Uriarte, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskarako zuzendari nagusia.
- Epaimahaikideak:
  - Alicia Fernández López (Rekalde Aretoko zuzendaria).
  - Arantza Lauzirika Morea (arte garaikidean aditua).
  - Juan Pablo Orduñez Martínez («Ertibil Bizkaia» Ikus Artearen Erakusketa Ibiltariaren 2019ko ekitaldiko deialdiaren lehen sariaren irabazlea).
  - Mikel Onandia Garate (arte komisario eta kritikaria).



— Idazkari titularra, botorik gabe:

- Montserrat Petralanda Gorrotxategi (Argitalpenen eta Kultura Zabalkundearen Ataleko burua).

— Ordezko idazkaria, botorik gabe:

- Mikel Murillo Aurrekoetxea (teknikaria kultura-proiektuen zuzendaritzan).

*Bigarrena:* Foru-agindu hau interesdunei jakinaraztea eta haren berri ematea Bizkaiko Foru Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuari, dagozkion ondorioak izan ditzan.

*Hirugarrena:* Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean foru-agindu hau.

Bilbon, 2020ko otsailaren 5ean.

Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatua,  
LOREA BILBAO IBARRA